

NARRATIBA

Erraietatik

EZER GABE HOBE

Itxaro Borda
Susa, 2009
213 orrialde. 16,15 euro

Iban BALERDI

Bidaiatzeak eraman du Itxaro Borda honako liburua idaztera. Azken urteetan bisitatutako tokiek eta hauetan bizitakoek, bidaiak, mugak, mugitu beharrak jarri dizkiote idazteko jomugan. Betiko gaia, gizakia gizaki denetik badena. Zer egin dugu bada, Historiaren hasieratik, tokiz aldatzea ez bada? Bestalde, ez higitzeak edota hesien areagotzeak izuan oinarritutako uniformetasuna dakarte. Honek, ordea, ez du etorkizunik munduak iraungo badu.

Honekin lotuta, eleberri eta erreportajearen arteko narrazio politikoa dugu Bordaren azkeneko hau. Imajina ditzakegun bidegabekeria guztiak aipatzen ditu modu garbi ala zeharkakoan. Gertukoak eta urrunekoak elkarrekin nahasten dira, azken batean arazoak berdinak direla ikusarazi nahian. Alde batean edo bestean egokitu, globoaren goialdean ala behealdean, arazoez nolabait ukitzen gaituzte, nahi ala nahi ez.

Era horretan hasten da 'Sangatte' kontakizuna. Sigma protagonista baionarra, Posa Ngaka pigmeoa bere autoan eramatera behartuta ikusten du bere burua. Sigma bere bikotekide Lamdarekin bizi da, baina beraien artekoa ez doa ongi. Pigme-



oak Londresera heldu nahi du bere herrikide batekin elkartzeko, eta eginkizun honetan adiskide berriak lagunduko dio.

Chalco, liburuaren bigarren zatian, Mexiko eta AEBen arteko muga da pasa beharko dutena. Kasu honetan Sigmak zenbait mexikarrekin batera egingo du bidea. Gainera oraingoan, bera izango da paperik gabe ibili beharko duena, itzalezik, isilpean, arrastaka.

Beraz, egoera modu arrotzean bizitzetik, hurbiletik ezagutzera iristen da lehenik, eta norbera egoeraren barnean sentitzera azkenik. Baina jakinik, «Posa pisto-

laz baliatu ez balitz, Sigmak ez zuela sekula pigmeoa muga zeharkatzen lagunduko». Askotan astindua behar baitugu egoera estatiko ustelduak atzean utzi eta aurrera egiteko.

Aipagarria da halaber, egileak sartzen duen erreferentzia pila. Etengabe hizkuntza desberdinetako hitz eta esamoldeak erabiltzen ditu. Hainbat zinema zuzendari eta idazleren izenak ere agertzen dira liburuan zehar. Baina batez ere abeslari eta abestiak, musika dago une oro presente, lotura moduko bat izan daitekeelakoan. «Kantuaren garrantziak ez gara aski axolatzen, botere ekonomikoek gaurkoan dirua sakelaratzeko mediotzat baizik ez daukatelako. Hitz baina sakonagoa da, unibertsalagoa; kanta urrats komuna da, eta kanta bat ardatz, begiak zerraturik, ibili bagabiltza, humano». Ederra definizioa.

Bukatzeko, Itxaro Bordak darabilen euskarari buruz ere esan nahi nuke zerbait. Onartu behar dut kosta egin zaidala bere hizkera eta egituretara ohitzea. Hiztegiarekin ibili naiz zenbaitetan eta laguntzarik gabe beste batzuetan. Baina agian liburuak harrapatu nauen heinean, balio handiagoa eman diot bere idazkerari ere, eta disfrutatzen amaitu dut. Dena den, guztia erraz eta simple nahi dugun garai hauetan, baionarrak aurkako norabideari eusten dio, eta honek irakurle kopurua ere mugatu egiten du. «Kontsolatzen naiz, bizitza, betetasunik baimentzen ez duen askatasunaren eremua dela errepikatuz».



Mikel IBARGUREN

Gogoetatzen


Esan, ahaztuxe neukan Clara Zetkin komunista alemaniarrek proposatuta emakume langilearen nazioarteko eguna antolatu zela duela ehun urte. Harrezkerotik historiari bere bidea egin du, are feminismoaren historiari. Eta hari-mutur horri tiraka Andrée Michel ikertzaile eta idazle frantziarraren "Le féminisme" liburua hartu dut berriro eskuetan. Ez du hautsak hartzeko astirik izan. Eskoletan-eta erakusten ez den historia gorde horri argi eginez ari da bertan autorea. Emakumezkoen ezkutuko historia horri, esan nahi baita. Izan ere, Ulisesengandik gaurdaino beti egon dira heroiak, politikariak, idazleak, Nobel saridunak, iraultzaileak, plaza-gizonak, maisulak (eta ez maistralanak, Josune Muñozek dioen bezala) eta abar. Gero daude emakumeak: putak, esku-lan merkea, esplotazioa, bortxa, hilketa... Horregatik da heroia Ulises eta ez Penelope (desira eta arrazoi maskulinoak baitira; kastitatea, berriz, femeninoa Eduardo Galeanori kasu eginez gero). Denok ezagutzen ditugu, gutxi-asko, Marx eta Lenin; ez, ordea, Vera Figner *Iraultzaren Venus*. "Les communards" delakoan artean gizonezkoen parte-hartzea historia da, baina barrikadetan *drapo* beltza lehenbizikoz altxatu zuen anarkista, Louise Michel *Enjolras*, apenas ezagutzen dugun.

«Emakumeak urkamendira igotzeko eskubidea du; beraz, tribunara igotzeko ere eduki behar du» idatzi zuen Olympe de Gouge andereak Emakumeen Eskubideen Adierazpeneko 10. artikuluan. Eta gillotinak lepo egin zion. Zergatik luzatu.

Finean, ezagutzen ez dugun historia-atal hori Graziana Barrenetxeaz, Maria Etxalekuz eta antzekoek (ordukoak eta oraingoak) osatuta dator. Hori bai, isilpean, sator-lanean, gora egin nahirik. Gizona gauza guztien neurria baita; emakumea, berriz, inportanteenena soil-soilik. Karlos Linazasorok ezin hobeto dioen bezala.

Esan gabe doa.

KALERATU BERRIAK



UN VIAJE A LA ALEMANIA DE POSGUERRA

EL DAÑO OCULTO
James Stern
Lengua de Trapo, 2010
464 páginas. 24,80 euros

Finalizada la Segunda Guerra Mundial, James Stern fue enviado a Alemania, junto a su amigo W. H. Auden, con el cometido de entrevistar a supervivientes de la contienda. El resultado es este libro, publicado por primera vez en 1947: además de los desoladores relatos, Stern se encuentra con lo viejos amigos, testigos de un horror tan atroz para él como cotidiano para ellos.



HISTORIA REAL DE UNA EPOPEYA

LOS VASCOS EN LA PESCA DE LA BALLENA | Mariano Ciriquiain G.
Txertoa, 2010
270 páginas. 17,50 euros

Abogado de formación, la afición por la historia de Mariano Ciriquiain Gaiztarrro (1898-1964) le llevó a escribir varios libros relacionados con la historia naval, entre otros éste que ahora reedita Txertoa y que en 1961 fue galardonado con el Premio Nacional Virgen del Carmen. La edición viene acompañada de un centenar de ilustraciones en blanco y negro.



LITERATURA Y VIDA

DE QUÉ HABLO CUANDO HABLO DE CORRER | Haruki Murakami
Tusquets, 2010
230 páginas. 17 euros

Haruki Murakami es sobradamente conocido entre los lectores, pero lo que pocos sabrán es que el autor de "Tokio Blues" se dedica con pasión a correr. Escrito a modo de diario cuando entrenaba para la maratón de Nueva York de 2005, en este libro reflexiona sobre la profunda influencia que este deporte ha ejercido en su vida y en su obra. Entre el ensayo y las memorias.



EL ESTILO DINESEN

CARNAVAL Y OTROS CUENTOS
Isak Dinesen
Nórdica, 2010
336 páginas. 20,95 euros

Coincidiendo con el 125 aniversario del nacimiento de la escritora danesa (17 de abril), Nórdica publica este volumen que recoge once relatos publicados tras su muerte, en 1962. Estos cuentos fueron escritos en diferentes etapas de la vida de la autora y entre ellos se encuentran algunos tan reconocidos como 'Caballos fantasmas' y 'El oso y el beso'.